



*Homo sapiens*en ezaugarri moderno eta arkaikoen nahastea dute Txinan aurkitutako garezurrek. Goian, garezurretako bat. Beheko irudiko itxura izango zutela uste dute ikertzaileek. ARG.: DARREN CURNOE ETA PETER SCHOUTEN.

dagoeneko, dena txikitu behar izan baitzen analisi hori egiteko”.

DNAren analisisen emaitzak eta Asian urte gutxian egin diren aurkikuntzak —Floresko gizakia, Denisovakoa eta azken hau— abiapuntutzat hartzen ditu Arrizabalagak, ez helmugatzak: “Denborari funtzionatzen eta filtratzen utzi behar diogu; eta argi izan halako aurkikuntzak oso interesgarriak direla filogenia eta eboluzioa aztertzen dutenentzat, baina gure jatorriaren ikuspuntutik ez dutela eraginik, ez badituzte beren zantzu genetikoak utzi egungo populazioan”. ●



## Untxiak ere gaixotu daitezke prioiekin

### Orain arte uste zen salbuespena zirela, eta behi eroek duten gaitz berak ezin ziela eragin

CICBiogune ikerketa-zentroaren Prioien Laborategian aurkitu da untxiek ere infekzio prionikoak gara ditzaketela, nahiz eta, beste ugaztun batzuen aldean, oso erresistentzia ezohikoa duten.

*In vitro* egindako ikerketetan oinarritu da lana, eta Joaquín Castilla doktore eta Ikerbasqueko ikertzaileak gidatu du ikerketa. “Prioia animalietan nola erreplikatzeko diren erreplikatu dugu laborategian, baina modu askoz azkar eta eraginkorragoan. Gure laborategian, saiatu gara egiaztatzen ea untxien ustezko erresistentzia hori egiazkoa zen ala ez. Emaitza harrigarria izan da; izan ere, laborategian hainbat jatorritako prioia erabili ditugu (ardi-, behi-, txerri-jatorrikoak eta beste) eta ia guztiek sortu dute untxi-prioia bat *in vitro*. Lehen aldia zen untxi-prioia bat ikusten zela”.

Laborategiko fasearen ondoren, Castillaren lantaldeak untxietan bertan aztertu zuen *in vitro* lortutako produktuaren kutsagarritasuna. Inokulaziotik 800 egunera, untxi bat infektatu zen, eta lau urteren buruan beste

animalia guztiek onik jarraitu zuten. Bi animalia-eredutan inokulatuta —untxi eta sagu transgenikoetan—, urte bat behar izan da sagu transgenikoen kasuan erakusteko untxi-prioia eraginkorra dela espezie berean transmititzeko; untxien kasuan, berriz, urte eta erdi behar izan da. Hori izan da untxi-prioia bat aurkitu izanaren behin betiko frogara.

Behi eroen gaitzak komunikabideetara salto egin zuenetik jakin nahi izan da nola eragingo zien gaitzak beste animaliei, eta urtetan pentsatu izan da untxiak erresistenteak zirela entzefalopatia espongiformearen gaitzarekiko. Erresistentzia hori ulertzen ezenez, inokulazio esperimental ugari egin zitzaizkien untxiei hainbat jatorritako prioiekin, eta ez zen untxirik gaixotu.

CIC BioGuneraren aurkikuntza *Proceedings of the National Academy of Sciences* —PNAS— aldizkari espezializatuan argitaratu dute. ●

